



HERNANI Ekainak 13

sekzio berezia//SAGARDOAREN LURRALDEA

Urumearen sekretuak ezagutzeko ibilaldian, izenematea

'Sagardoaren Lurraldea Ezagutzuz' ibilbidea antolatu dute Astigarraga eta Hernanin barrena datorren iganderako.

HERNANI HERNANI

2016/04/16 00:00 Larunbata

Sagardoaren Lurraldeak eta Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo Udalek antolatuta, Sagardoaren Lurraldea ezagutzuz ibilaldia egingo dute datorren igandean.

Goizeko 10:00etan hasita, Astigarraga eta Hernani zeharkatuko dituzte, eta bukatzeko, apirilaren 20ean Hernanin inauguratuko den Sagardo Ibaiak, bizitza iturri erakusketan barrena egingo dute bisita gidatua.

Ibilaldiko interesguneetan, azalpenak

Ibilaldi osoa oinez egingo dute, baina zenbait geldialdi egingo ditute eta bertan, aditu batek interesguneari buruzko azalpenak emango ditu lau txokotan: Astigarragako Murgia Jauregian, Ergobiko zubian, Epele-Ereñotzun eta Portu auzoan. Bukaeran, Akarregi sagardotegian bazkaltzeko aukera luzatu dute, baina hori hautazkoa da.

Izenematea, beharrezkoa

Ibilaldia parte hartzea doakoa da; aldiz, bazkarira joan nahi izanez gero, 24 euro ordaindu beharko dira.

Dena dela, aurretik izenematea beharrezkoa izango da parte hartzeko. Horretarako, Sagardoaren Lurraldearekin jarri behar da harremanetan: telefonoz, 943 55 05 75 zenbakian, edo emailez, info@sagardoarenlurraldea.com helbidearen bitartez.